

udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**



IZENBURUA:

Euskarak 365 egun:

hizkuntza-ohiturak eta gizarte aktibazioa Euskal Herrian eta elkarrekin lantzeko proposamen berria

EGILEA:

Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Euskaltzaleen Topagunea

DATA:

2017/05/12



Aurkibidea

1. Zer da berria?.....	2
2. Zein da proposamena?.....	3
3. Norekin egin nahi dugu?.....	6
4. Noiz egin nahi dugu?.....	7
5. Non egin nahi dugu?.....	7
6. Nola egin nahi dugu?.....	8
6.1. Izen-ematea.....	8
6.2. Aktibazioa eta komunikazioa.....	9
6.3. Lan-egutegia.....	10
6.4. Baliabideak.....	10
6.5. Ebaluazioa.....	11
6.6. Gonbita.....	12
Eranskina: erronkaren uste teorikoak.....	13



1. Zer da berria?

Egin nahi dugun hori da berria alde batetik. Zorionez, euskaldunon izateko nahiak eraginda, euskalgintzak (izan instituzionalak, izan gizarte eragileenak, izan pertsona mailakoak) urteak daramatza, han eta hemen, holako eta halako, ekintzak (proiektuak) sentitzen, pentsatzen eta egiten. Zorionez!

....Proiektu honen bidez, ahalegin horiek (ber)aktibatu, ikustarazi eta euskararen lurraldeko herri guztietan gauzatuz urrats berri bat ematen lagundu nahi dugu.

.....Euskal gizartearen gehiengoak euskararen aldeko jarrera dauka. Hizkuntzaren alde egotetik egitera kolektiboki egin nahi dugu jauzi; euskararen lurraldean jarrera positibo hori duten hiztun kolektibo zein sektore guztietan (izan herri, elkarte, enpresa edo bestelakoak) hizkuntza-ohituren aldaketa esanguratsua eta anbizioz betea proposatu, eragin eta, hala adostuko bagenu, egin nahi dugu. Erronka pertsonala eta kolektiboa (ahalik eta kolektiboena) uztartu nahi ditugu.

Egiteko modua ere, batez ere agian, nahi dugu berria izatea. Elkarlan-eredu berri bat gauzatu nahi dugu, hainbat planotan:

- Gizarte eragileen eta erakunde publikoen artean.
- Tokian tokiko kolektiboen eta nazio mailako artean.
- Euskalgintzan zein bestelako esparruetan ari diren eragileen artean.

. Proiektuaren abiapuntuko sustatzaileak erakunde publiko bat eta gizarte eragile bat gara eta gure gain, elkarrekin, hartu nahi dugu proiektua diseinatzeko, gauzatzeko eta bururaino eramateko erantzukizuna. Erantzukizun partekatua.

Zergatik? Alde batetik, erronka edo helburu bera partekatzen dugulako: gizartea aktibatzea euskaren erabilera areagotzeko. Euskaltzaleen elkarteek eta bestelako gizarte eragileek bide bat egina dute azken urteetan *Euskarak 365 egun* ekimenaren eta aktibazio ekintzen bueltan, eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ere euskararen erabilera aktibatzea du hurrengo urteetarako lehentasun nagusietako bat.

Bestetik, elkarlanean sinesten dugulako eta elkarren beharra dugulako: badakigu indarrak eta baliabideak batuta urrunago hel gaitzkeela, eta euskararen normalizazioaren bidean pauso handi bat emateko beharra dugu.



Abiapuntua. Proiektua ez da ezerezetik sortua; euskaltzaleak ari dira herrietan antolatu eta aktibatzen, eta horren adibide dira Donostiako Egia auzoa, Lasarte-Oria, Agurain eta Arrigorriaga, besteak beste. Bestalde, sektorez sektore asko dira hizkuntza plangintzak landu eta aurrerapausoak ematen ari diren enpresak, elkarteak, erakundeak eta bestelakoak. Honekin batera, euskaltzaleen mugimenduak azken urteetan egindako *Euskarak 365 egun* ekimenak gizartearen aktibazioan eta ikusgarritasunean jarri du fokua.

Bi erakunde emango diogu hasiera sustapen proiektu bateratu honi, baina helburua da ahalik eta erakunde publiko gehienek eta ahalik eta gizarte eragile gehienek parte hartzea proiektuan. Nahi duen guztiak parte izatea, bakoitzak bere partea jartzea eta proiektua, han edo hemen, era batera edo bestera, gauzatu nahi duenak, egiteko estilo berarekin gauzatzea, hau da, elkarlanean eta erantzukizun partekatuarekin.

Lan-ildo. Abian jarri nahi dugun proiektu honek ez du kanpaina bat izan nahi. Hainbat urtetan zehar garatu nahi den lan-ildo bat izan nahi du, unean-unean kanpainak ere izango dituen, baina urtez urte progresibitate bat bilatu nahi duen eta arnas luzeko jarduna izatea helburu duena.

2. Zein da proposamena?

Proposamena hizkuntza gutxituak indarberritzeko edozein saiari aitortzen zaizkion bi oinarriren gainean eraiki da:

- a. **Pertsonen nahia.** Hizkuntza-komunitatearen borondatea da hizkuntza biziberritzeko ezinbesteko baldintza. Nahi horretan oinarrituta, gizarteak euskararen alde azaldutako borondate hori euskara gehiago erabiltzeko praktika sozialetara eraman nahi da.
- b. **Neurri sozialak.** Hitzunen borondateak, ordea, neurri sozialak behar ditu, gogo horrek duen indarrak baldintza sozial gero eta egokiagoak aurki ditzan eta hizkuntza erabiltzea gero eta jardun inertzialagoa bilaka dadin.

Arestian esandakoan oin hartuta, proposamena bi planotan gauzatu nahi da:

- 1) **Tokian tokikoa.** Herri bakoitza autoerronka bat hartzera gonbidatzen dugu. Erronka horrek bi urrats aktibatzea proposatzen du:
 - a. **Pertsonak aktibatzea.** Euskararen herrian ahalik eta pertsona gehien euskara gehiago erabiltzera animatuko duen dinamika aktibatzea herri horretan.
 - b. **Erakundeak aktibatzea.**
 - i. Erakunde bakoitzaren eremuan ahalik eta pertsona gehienak arestian aipatutako dinamikan parte hartzera anima ditzan.
 - ii. Erakunde bakoitzaren barruan pertsona horien guztien hizkuntza-praktika berriak erraztuko dituzten neurriak har ditzan.



- 2) **Euskal Herri mailakoa.** Herri bakoitzeko aktibazio hori, euskararen herri osokoa bihurtuko dugu. Hori ere, bi zentzutan:
- Pertsonak aktibatuz. Urtean zehar herriz herri izena eman duten "X" hiztunen arteko erronka kolektiboa, nazio mailakoa, izango da 11 egunez euskaraz egitea, euskaraz ulertzen duten norberaren ezagun guztiekin eta euskaraz lehendabiziko hitza eginez ezezagun guztiekin. Erronka hori "Baietz 11 egun euskaraz elkarrekin!" izango da.
 - Erakundeak konprometitz. Pertsonen aktibazio egin ondoren, proiektuan parte hartu nahi duten erakunde guztiak hizkuntza-praktika berri horiek erakundearen barruan gehitzeko eta errazteko neurriak hartzera gonbidatuko dira.

Eta zergatik?

Euskararen egoerak gaur eta hemen behar eta eskatzen duen planteamendua dela uste dugulako. Hala iruditzen zaigu:

- 1) **Errealitate soziolinguistikoari dagokiolako.** Ezagutzan irabazitakoa erabilera eramaten asmatu behar dugulako eta horretarako, egiten ari garen guztiaz gain, iruditzen zaigulako hizkuntza-ohituren inertziei astindu bat eman behar diegula. Uste horrek oin hauean hartzen du indarra:
- Euskara ulertu bai, baina euskaraz egiteko nahikoa gaitasun edota ohitura ez duten milaka euskaldunei orain artekoa baino paper garrantzitsuagoa, eta batez ere eskaintza egokituagoa helaraztea izan daiteke kako nagusietako bat. Aldeko jarreraz gain, ulermena bistaraztea eta ulermen horrek erabilera askatzeko (aktibatze) duen garrantzia sozializatzea giltza nagusietako bat izan daiteke azken urte luze hauean jarreretan eta gaitasunean inbertitu dena erabilera bihurtzeko edo bihurtzen laguntzeko. Hau da, erabilerak bidea gehitu dezala ulermenak bideragarri egiten duen guztietan, erdarara lerratzeko beharra gutxitzen doan heinean.
 - Euskara ulertzeko gai ez diren (edo gai sentitzen ez diren) euskaltzaleei ere rol aktiboa aitortu nahi diegu. Euren jokabideak ingurukoen hizkuntza erabilera baldintzatzen duela jakinik, eragin positiboa izango duten jarrerak lantzen lagundu nahi diegu. Horretaz gain, gutxieneko hizkuntza ulermena bermatuko duten formazio-saio laburrak eskaini genitzake. Horrela, gainerako kideei bidea errazteaz gain, hizkuntzaren normalizazio prozesuaren parte izan litezke. Izan ere, euskal herritar guztiak bilduko dituen ekimen parte hartzailea da garatu nahiko genukeen hau.
 - Hori lortzen den heinean, euskaldunak gehiagotan eta pertsona gehiagorekin euskaraz aritu daitezten aktibatzea berria eta errazagoa izan daiteke. Badakigu kako nagusietako bat euskaldunek euskaraz egiteari eustea dela, erdarara lerratu gabe, eta helburu horretan jauzi berri bat eman ahal izango dugu, baldin eta hori egin nahi duen euskalduna horretara aktibatzen badugu, eta inguruan gehitzen ari zaizkion egoeretan (eta pertsonekin) adostutako dinamika baten baitan egiten badugu.



- d. Norbanakoek hartzen dituzten konpromiso horiek, ezinbestean, erakundeen (administrazioen, elkarteen, ikastetxeen, enpresen...) erantzukizuna eta babesa behar dute, hizkuntza-ohituren aldaketa hori egiturazkoagoa eta iraunkorragoa izateko.

- 2) **Momentua delako.** Baldintza soziolinguistikoak sortzeaz gain, giro soziopolitiko egokia dugulako urrats hau emateko. Eta baita ere, sortu ditugulako elkarlanean aritzeko baldintzak.

Euskaltzaleen mugimenduan eta administrazioetako hizkuntza-politiketan ere herritarrak euskaraz aritzera aktibatzekeo dinamikak gauzatzen eta hedatzen ari gara azkeneko urteetan, eta hori areagotzeko nahia dago gainera. Horretaz gain, ekimen honen bidez hizkuntzaren aldeko herritar sareak sortu eta indartu ditzakegu.

- 3) **Guztion erantzukizuna delako.** Lehen eta orain, euskararen etorkizuna herritarron esku dagoelako. Hasteko euskal hiztunen esku, baina baita ere euskaraz ulertu arren euskaraz egiteko ohiturarik ez duten euskaldun eta ia euskaldunen esku. Eta baita ere egun oraindik elebakar direnen esku ere, bai pertsona-mailan eta bai erakunde erakunde ere hartzen dituzten euskararekiko jarrerak eta egiten dituzten urrats praktikoeke ere baldintzatu egingo baitute euskararen behin betiko indarberritzea. Euskarak erabilerarako esparruak irabaztea bizikidetzarako esparruak irabaztea dela iruditzen zaigu.

4) **Ezaugarri hauek dituelako:**

- a. Erakargarria, erabilera logika berritzaile batekin eta estilo berri eta baikor batekin aktibatu nahi duena.
- b. Parte-hartzailea, edozein pertsona eta erakunderentzat irekia eta erronkak erakargarri bihurtzen duena.
- c. Integratua, pertsona, erakunde, herri eta nazio mailak uztartzen dituena.
- d. Egingarria eta moldagarria. Definizio zehatza eman bazaio ere, ez da zurruna eta bakoitzaren egoeraren, nahien eta indarren arabera moldagarria dena.
- e. Progresiboa, pertsona eta neurri sozial kopuru batekin hasi eta urtez urte gehitu nahi duen dinamika bat bilatzen duena.

Eta helburuak?

- A. Hizkuntza-ohiturei astindu bat ematea eta ahalik eta pertsona gehien hizkuntzaren armairutik irtetea, euskara gehiago erabiltzeko ohitura berriak sozializatuz.
- B. Tokian tokiko euskalgintza aktibatzea, ahalik eta erakunde gehienetan pertsona horien praktika linguistikoak erraztuko dituzten neurriak har ditzaten.



- C. Ekimenetik abiatuta emango diren urrats berriak eta sortuko diren euskarazko harremanak, dinamikaren ostean mantentzea.

3. Norekin egin nahi dugu?

Proiektu honek bere baitako ezaugarria du “ahalik eta pertsona eta ahalik eta eragile gehien” esaldia. Hori horrela izan dadin, ordea, lanak antolatuta egin behar dira eta maila hauek, behintzat, bereizi daitezke:

Parte-hartzaileak

Proiektuan parte hartu nahi duten herri, erakunde publiko zein pribatu eta pertsona guztiak izango dira parte-hartzaileak.

Alde batetik, **pertsona-mailako parte-hartzaileak** daude. Euskara ulertu behintzat egiten duten (edo zerbait ulertzea iristeko urrats bat ematen duten) helduen aktibazioa da ekimenaren helburu nagusia, horregatik, 16 urtetik gorako pertsoneri egingo diegu parte hartzeko gonbidapena. Ikastetxeei dagokienez, egitasmoaren xedeta-deak gurasoak, langileak eta 16 urtez gorako ikasleak izatea proposatzen dugu. Uste dugu, egitasmo hau adin horretatik azpiko gaztetxoei ez zaiela zuzendu behar. Bai, ordea, horien erreferentzia eta eredu diren gazte eta helduei.

Beste alde batetik **talde-mailako parte-hartzaileak** daude. Izan auzo, herri edo eskualde gisa parte hartzen duten eremu geografikoak, izan, eguneroko jardunean herritarren esparru diren bestelako kolektiboak: elkarteak, kirol taldeak, enpresak, ikastetxeak eta abar.

Sustatzaileak

Ekimen hau aurrera eramateko, eragileen sare zabalak sustatzea dugu helburu Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaleen Topaguneak. Horretarako, parte hartzeko deia luzatuko diegu erakunde publikoei eta gizarte eragileei:

Eusko Jaurlaritzak ahaleginak egingo ditu Euskal Herriko ahalik eta administrazio gehienek parte har dezaten eta aldi berean horiek antolatzaile eta eragile bihurtu daitezkeen bere eskumen-esparruan (Nafarroako Gobernua eta Iparraldeko Euskal Elkargoa; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiak; Euskal Herri osoko udalak...).

Euskaltzaleen Topaguneak ahaleginak egingo ditu Euskal Herriko ahalik eta gizarte-eragile gehienek parte har dezaten eta aldi berean horiek antolatzaile eta eragile bihurtu daitezkeen bere eskumen-esparruan (herriz herriko



euskalgintzako eragileak [euskara-elkarteak, euskaltegiak...]; sektorekako gizarte-eragileak [enpresak, sindikatuak...]).

Eta, Jaurlaritzak eta Topaguneak, bakoitzak bere bidetik egingo dituen ahalegin horiez gain, elkarrekin ere jardungo dute proiektura “ahalik eta erakunde gehien” bil daitezen.

Sustatzaileak, tokian tokian edo Euskal Herri mailan eragingo duten eragileak izan daitezke. Tokian tokikoei dagokienez, bai herriak eta bai herriko euskalgintzak oso errealitate desberdinak izan baditzakete ere, erakunde huez osatutako euskalgintzaz dihardugu: udaletako euskara zerbitzuak, euskara elkarteak edo euskararen erabilera sustatzea helburu duen gizarte-eragilea, ikastetxeak, euskaltegiak... Euskal Herriko sustatzaileei dagokienez, adibidez, erakunde publikoetako euskara sailak eta euskalgintza antolatuko askotariko eragileak bilduko lirateke. Beharrezko ikusten dugu herriz herriko euskalgintzak saretuta ekitea proiektuari, elkarlanean.

Koordinatzaileak

Azkenik, egitasmoaren erakunde koordinatzaileak Eusko Jaurlaritza (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) eta Euskaltzaleen Topagunea dira. Bi erakunde hauek ahaleginduko dira proiektura “ahalik eta eragile gehien” biltzen, erakunde horien jardunaren bidez proiektuan “ahalik eta pertsona gehienek” parte har dezaten. Era berean, beren gain hartuko dute proiektuaren antolaketa lana.

4. Noiz egin nahi dugu?

1. **“Baietz 11 egun euskaraz elkarrekin!”** erronka 2018ko azaroaren 23an hasi eta abenduaren 3an amaituko da.
2. **“Erakunde bakoitzean praktika sozial berriak erraztuko dituen neurri bat!”** ekimena 2019. urtean zehar gauzatuko da.

“Baietz 11 egun euskaraz elkarrekin!” erronkan aktibatu diren erakunde guztiak erakundearen beraren barruan pertsona horien guztien hizkuntza-praktika berriak erraztuko dituzten neurriak hartuko dituzte.

Urte batean, pertsonen nahian oinarrituz, hizkuntza-praktika sozial berriak bultzatuko dituen ekimena sustatzea, eta hurrengo urtean, erakunde mailako konpromisoa oinarri hartuz, praktika sozial berri horiek erraztuko dituzten neurri sozialak hartzea izan daiteke proposamen honek jasotzen dituen helburuak urtez urte eta modu progresibo batean lantzen jarraitzeko era egoki bat.



5. Non egin nahi dugu?

Euskal Herri osoan egin nahi dugu. Beraz, hala erabakitzen duten Euskal Herriko herri (edota erakunde) guztietan egingo da. Urratsak eman litezke:

- Auzo, herri zein eskualde gisa.
- Elkarte, komunitate, enpresa zein talde gisa. Izan tokikoak zein Euskal Herrikoak.



6. Nola egin nahi dugu?

6.1. Izen-ematea

Parte hartzea bi fasetan bereizten da:

1. URTEA: “Baietz 11 egun euskaraz elkarrekin!”

HERRIA INSKRIBATU:

- Inskribatzeko irizpideak:

a) Udalak eta euskalgintzako gizarte-eragileek lan-mahaia osatu dute eta proiektuan parte hartzea erabakitzea (irizpide hori jartzen da, proposamen hau berria egiten duen ezaugarrietako bat, egiteko modu hori, erantzukizun partekatu hori delako).

b) 2018an “Baietz 11 egun euskaraz elkarrekin!” erronka aktibatzea.

ERAKUNDEA INSKRIBATU:

Batzuetan, berriz, erakunde batek (elkarte, enpresa, unibertsitate...) erakunde-mailako inskripzioa egitea hobetsiko du. Agian:

- Herria inskribatzeko baldintzak ez direlako bete.

- Herria inskribatzeaz gain, erakundeak berariazko erronka bat hartu nahi duelako.

Kasu horietan, inskribatzeko baldintza izango da:

a) Erakundearen eremuan “Baietz 11 egun euskaraz elkarrekin!” erronka 2018an aktibatzea, ahalik eta pertsona gehienek dinamika horretan parte hartzera animatuz.

PERTSONAK IZENA EMAN:

Pertsona bakoitzak herri edo erakunde batean, behin bakarrik, eman beharko du izena eta kasu horretan, izena “Baietz 11 egun euskaraz elkarrekin!” erronkan parte hartzeko egingo du. Pertsona bakoitzak aukeratuko du “bizi” den herri horretan edo “parte den” erakunde horretan izena ematea, baina horretarako inskribatuta egon beharko dute (bai herriaren kasuan eta bai erakundearen kasuan).

Erronka horretan parte hartzeko bi rol hauetako batean eman behar da **izena**¹:

a). **Ahobizi**. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra Ahobizi ikurra eramango du ikusgarri eta euskaraz egingo dio ulertzen duenari, horrek erdaraz erantzun arren.

b)..... **Belarriprest**. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra Belarriprest ikurra eramango du ikusgarri eta horrela, dakienari berarekin euskaraz aritzeko gonbitea egingo dio, berak euskaraz edo erdaraz egin arren.

¹

Izena ematea eta datu pertsonalen babeserako legea nola beteko diren modu zehatz batean aztertuko da aurrerago.



Inskribatzeko baldintzak:

- a) Euskal Herrian jaio, bizi edo lan egitea.
- b) 16 urte edo gehiago izatea.
- c) Izena ematea:
 - *Belarriprest* izateko, euskaraz ulertu behar da ezinbestean.
 - *Ahobizi* izateko, euskaraz hitz egiteko gaitasuna behar da.

Ahobizi zein *Belarriprest* rolek (eta ikurra eramateak) ez dute muga geografikorik. 11 egun horietan zehar eguneroko jardun eta eremu guztietan (ez soilik izena emandako herrian edo erakundeetan) rol horietan jardutea proposatzen da.

2. URTEA: “Erakunde bakoitzean praktika sozial berriak erraztuko dituen neurri bat!”

ERAKUNDEA INSKRIBATU:

Kasu honetan, inskribatzeko baldintza izango da erakundearen barruan hizkuntza-praktika berriak erraztuko dituzten neurriak hartzea. Neurri horien nolakotasuna zehatzago aztertu beharko bada ere, komeniko da bai neurri instituzionalak hartzea eta baita praktika berriak abiatu dituzten pertsonen artean adostutako neurriak ere izatea.

6.2. Aktibazioa eta komunikazioa

Ongi komunikatzea izango da proposamen honek desio dugun aktibazioa izateko zubi nagusietako bat. Hain da garrantzitsua atal hau, ezen ezin diogula txosten honetan behar duen zehaztasun eta sakontasunik eman. Komunikazio-plan handi, on eta osatu bat behar du eta Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaleen Topaguneak abian jarri beharko duten koordinazio lantaldearen zeregin garrantzitsuenetakoa eta lehentasunenezkoa izan beharko du, seguruenik.

Komunikazio-plan horrek hainbat maila izan beharko ditu:

- i) Nazio mailakoa: egitasmoaren komunikazio orokorra gidatu behar da, besteak beste:
 - (1) Elementu komunak: marka, izena, leloak, irudiak, euskarriak, abestiak...
 - (2) Hedapen komuna: egitasmoak arrakasta izan dezan, telebistak, egunkariak, aldizkariak, weba, sare sozialak, berriaz egitasmoa bistaratzeko antola daitezkeen ekintzak (adibidez nazio mailako sustatzaile nagusiekin) eta abar luze bat erabili beharko dira eta hori izango da egitasmo hau ongi bideratzeko elementu nagusietako bat.
- ii) Herrialde mailakoa: nazio mailakoa eta herri mailakoa uztartzeko ahaleginak egitea dagokio seguruenik maila honi eta bereziki elementu eta hedapen komun hori herriz herri zabal dadin lagundu beharko du.



- iii) Herri edo erakunde mailakoa: eremu bakoitzean egitasmoaren sustatzaile direnek erabaki beharko dute herri edo erakunde horretan pertsonak eta erakundeak aktibatzen modu egokienak zeintzuk diren eta horren arabera diseinatu eta gauzatu beharko dute dagokien komunikazio-plana.

Sustatzaileek beraiek erabaki beharko dute nazio-mailan prestatutako elementu horiek berberak erabiltzeaz gain, beste batzuk ere sortzea eta horiek herrian edo erakundearen hedatzeko moduak ere zeintzuk izango diren. Komunikazioaz eta aktibazioaz dihardugunean, badihardugu egitasmoa herri mailako hedabideetan bistartzeko moduez, baina baita ere, herriko eragileen artean egitasmoa zabaltzeko egin litekeen beste edozein eratako lanaz.

Arnas luzeko egitasmo bat izan nahi duen heinean, komunikazio-plan horrek hainbat fase ere izan beharko ditu. Besteak beste, egitasmoak berak ere badituelako.

6.3. Lan-egutegia

EPEA		ZEREGINAK
2017		
Martxo-maiatza	1. FASEA: DEFINIZIOA	- Proiektua definitu eta adostu. - Erakunde koordinatzaileen arteko elkarlana zehaztu eta hitzartu. - Ahalik eta eragile gehien (politikoak, teknikoak eta gizartekoak) erakarri Udaltopera.
Maiatza-uztaila	2. FASEA: PRESTAKETA	- Proiektuaren berri emateko prozedura prestatu. - Proiektuaren komunikazio-plana prestatu - Erakunde sustatzaile nagusiak landu (Hakoba, unibertsitateak, Gobernuak, sindikatu nagusiak, euskaltegi-sareak...) - Baliabide materialak prestatu (tresneria informatikoa...) - Lantaldeak abiatu. - ...
Iraila-azaroa	3. FASEA: SUSTAPENA	- Euskarri komunikatiboak sortu eta berariazko ekintzak hitzartu. - Sustapen-lana egin maila guztietan (aurkezpen publikoak, komunikabideen lanketa...) - Abenduaren 3ko ekintza(k) antolatu. - ...
Abendua	AURKEZPEN PUBLIKOA	
2018		

6.4. Baliabideak

Proposamen hau garatu nahi duen erakunde edo herri bakoitzak proiektu bat prestatu beharko du, egitasmoa ahalik eta indartsuen garatzeko. Proposamen horrek ezinbestean beharko ditu diruzko baliabideak, giza baliabideak eta herri-mailako komunikaziozko baliabideak ere.

Edozein kasutan, erakunde koordinatzaileek ondoren zehazten diren baliabideak prestatu eta proiektuan parte hartu nahi duten herri eta erakundearen eskura jarriko dituzte. Adibidez:



- Baliabide linguistikoak

- a. UlerTU² (erdaldunei zuzendurikoa, ahozkoaren oinarriko ulermena ikastaro labur baten bidez eskuratzeko helburuz).
- b. BelarriprestaTU (Belarriprest jokabideaz jabetzeko jarraibideak; gida, bideo, saio... formatuetan emana).
- c. AhobizITU (Ahobizi jokabideaz jabetzeko jarraibideak; gida, bideo, saio... formatuetan emana).
- d. Bestelakoak.

- Bestelako baliabideak

- a. Informatikoak (weba, datu-basea...).
- b. Neurrien katalogoa (erakunde bakoitzean hizkuntza-praktika berriak laguntzeko neurriak).
- c. Komunikaziozko baliabide komunak (marka, izena, leloak, logoak, irudiak, euskarriak, spotak...).
- d. Antolamendurako lan-gida (inskribatutako herri edo erakunde bakoitzaren lanak proposatuz).
- e. MEG (Maiz Egindako Galderak).
- f. Bestelakoak.

6.5. Ebaluazioa

a) Egitasmoaren berariazko ebaluazioa

Edozein egitasmok bezala, egitasmo honek ere bere ebaluazioa izan beharko du, bai Euskal Herri mailakoa, bai herri edo erakunde bakoitzaren mailakoa ere, eta batean zein bestean, ebaluatu beharko dira edozein egitasmotan baloratu ohi diren aspektuak (antolaketa, komunikazioa, parte hartzea...), hasi egitasmoaren diseinutik eta gauzapeneraino.

b) Hizkuntza-ohituren gaineko ikerketa

Horretaz gain, ordea, ikusita egitasmoak baduela pertsona askoren arteko hizkuntza-ohiturak astintzeko eta, ahal bada, denboran zehar euskarara lerratzeko helburua, sustatzaileen asmoa bada hizkuntza-ohituren aldaketa hori ikertzea.

² Soziolinguistika Klusterra eta Gipuzkoako Foru Aldundia esperimentatzen ari diren **Ulersaioak** proiektuaren garapena.



Hori nork, nola, noiz eta non egin behar den definitzeak, ordea, orrialde hauen helburua eta hedadura ere gainditzen du eta erakunde koordinatzaileek aurreragorako zeregintzat uzten dute, izan Jaurlaritzak berak, izan Soziolinguistika Klusterrak edo unibertsitateek edo egoki irizten eta dagokienean erabakiko den erakundeen artean eta erabakitzen den moduan gauatzeko asmoa da txosten honetan jasota geratzen dena.

6.6. Gonbita

Hauxe da, orain arte, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskaltzaleen Topaguneak “*Euskarak 365 egun: hizkuntza-ohiturak eta gizarte aktibazioa Euskal Herrian eta elkarrekin lantzeko*” izenburuarekin prestatu duten proposamena.

Gauza asko geratzen dira oraindik zehazteko, baina bidea, eginez egiten den ustean, definizio-maila honekin jarri dugu Udaltopen mahai gainean, bi gauza bilatu nahian:

1. **Ekarpenak.** Emandako definizioan oinarrituz, proiektua hobetuko duten ekarpenak egitea gustatuko litzaiguke.
2. **Parte izatea.** Proposamena guztiona izatea nahiko genuke eta horrexegatik gonbita luzatzen dizuegu guztioi proiektuaren sustatzaile izan zaitezten.



Eranskina: Erronkaren uste teorikoak³

“Baietz 11 egun euskaraz elkarrekin!” erronkaren oinarrian uste teoriko hauek daude:

1) Erabilera, ardatza eta bultzagilea hasieratik

Erabilerara iristeko erabileratik bertatik abiatu behar da hasieratik. Planteamendu zirkularra da, edo hobe esanda, espirala. Erabilera erabileratik bertatik elikatzen da. Erabilera arrakastatsu batek erabilerari berari eusteko berezko motibazioa sorrarazten du. Erabilera arrakastatsu batek, denboran zehar iraunez gero, hizkuntza trebeki erabiltzeko kideen gaitasuna hobetzen du.

Erabilera helburu duen esku hartze batek erabilera bera jarri behar du esku hartzearen abiapuntuan bertan. Hala, hizkuntza portaera jakin batzuk zehaztu behar dira, eta haiek gauzatuko dituzten pertsonak aurkitu behar dira (gure kasuan, protagonisten borondate eta nahian oinarrituta). Hizkuntza portaera horiek gauzatzerakoan abiatzen da esku hartzea.

2) Talde urratzaile baten eta talde babesle baten beharra

Hizkuntza erabilera ez da inoiz kontu indibiduala. Bikotea da gutxieneko unitatea. Eta bikotetik aurrera, hirukoteak, laukoteak, enekoteak... Hizkuntza erabilerak komunikazioak berak bezala bi alderdi ditu: mintzatzen den alderdi bat eta entzuten-ulertzen duen beste bat (edo idazten eta irakurtzen duen alderdi bana, idatzizko kodea gogoan hartuz gero).

Hizkuntza komunikazioari dagokionez, hautua egin dugu kide bat euskaraz mintzatzeko gai den eta beste kide bat euskaraz gutxienez ulertzeko gai den bikotearen alde. Hauxe izango litzateke gure bikote eredu axiomatikoa. Hauxe, gure esku hartzearen jomuga. Bi kideak euskaraz mintzatzeko gai diren bikoteak gure bikote axiomatikoaren kasu berezia baino ez dira. Baina baliteke kategoria horretan sartzea ere bikote bat, zeinak kide bat baduen euskaraz nahiko ongi ulertu arren, euskaraz mintzatzeko gauza ez dena.

Oso usu dira erdarazko jokaerak halako bikote axiomatikoetan, bereziki bikote asimetrikoetan (non kideetako batek ez du aski gaitasunik euskaraz aritzeko, ulertu arren), baina baita bikote simetrikoetan ere (non bi kideek duten euskaraz jarduteko gaitasuna). Harreman horiek finkoak direnean hizkuntza ohituraz hitz egiten dugu. Gure egoera soziolinguistikoan erdarazko hizkuntza ohitura dugu nagusi gure bikote axiomatiko gehientsuenetan, bereziki bikote asimetrikoetan.

³ Jauregi, P. eta Suberbiola, P. (2015), *Aldahitz ikerketa 2014. Eusle metodologia eta hizkuntza ohituren aldaketa lan-munduan*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.



Erdarazko jokaera ohiko den harreman batean euskaraz aritzea ohitura-arau-lege inplizitu baten haustura eta urradura da. Zerbait arrotza, deserosoa eta nekagarria. Hala ere, urradura hori egin gabe ez dago ez hizkuntza ohiturarik ez edozein ohiturarik aldatzerik. Urradura batek zartatu egiten du eremu sozial baten egonkortasuna, eta, ezinbestez, gainerako kideek ere urradura haren zartakoak nozitzen dituzte. Jokaera urratzaile baten eraginak jasotzen dituzten kideek erresistentziaz erreakziona dezakete urratu aurreko egoerara lehenbailehen itzultzeko, edo, aitzitik, ontzat har dezakete (bestelako bizitasunez: neutraltasunetik gogo beteraino) jokaera urratzaile berria, hartara egokituz modu zabalean. Kasu bat izan ala bestea izan ez da bera kostu energetikoa taldekideentzat.

Erabilera ardatz eta hizkuntza portaeraren taldetasuna gogoan hartuta, esku hartzea bi multzotara aldi berean zuzendu behar da. Hizkuntza jokaera urratzailea (hots, erdarazko ohitura finkatuta duen harreman batean euskaraz aritzea) izango duen multzo bat aurkitzea-antolatzea-aktibatzea, alde batetik. Eta jokaera urratzaile hori ontzat hartuko duen multzo harkor eta zabala lotzea, beste alde batetik. Bi multzo-talde hauen osagarritasunetik etor liteke erdarazko ohitura bertan behera utzi eta euskarazko ohitura eraikitzen hasteko gatazarik gabeko edota energia ezkor gutxiko prozesuak abiatzea.

Ez dugu indar urratzailea erakutsiko duten kideak soilik bilatu nahi. Haien eginkizuna berez deserosoa dena behar baino latzagoa ez izatea ere bilatu nahi genuke babesle multzo handi baten antolakuntzaren bidez. Talde babesle batek eramangarriago egiten du talde urratzaile baten jarduna. Talde babesle batek legitimotasun soziala ematen dio halako jokaera bati, berria eta urratzaile izanagatik ere.

3) Ulermenaren balio askatzailea

Euskarazko komunikazioa zeharo ezeztatzen da solaskideetako batek euskaraz ulertzen ez duenean. Euskaraz jarduteko aukera, ordea, zabaldu egiten da solaskide guztiek ulertzen dutenean. Ulertzeko gaitasunak, orduan, euskarazko komunikazioaren atea zabaltzeko giltza du berekin. Ulermena giltza izateak ez du esan nahi, ordea, ezinbestean atea zabalduko denik, (giltza batek ez du inoiz berez ezer irekitzen, ez bada norbait giltza hori erabiliko duenik) baina ulermenaren giltzarik gabe, atea ezin ireki. Ulermenak ematen du komunikazioaren aukera, ez komunikazioa bera.

Bi kideetako batek euskaraz ulertu ezean, ez da euskarazko komunikazioaren korapiloa askatzen.

4) Mintzamenaren balio gauzatzailea

Euskarazko ulertzeko kideen gaitasunak komunikazioaren aukera agerian uzten badu, aukera horren gauzapena gertatzen da kideetako batek, gutxienez, euskaraz hitz egiten duenean. Mintzamina da, orduan, giltza darabilen eskua komunikazioaren atea zabaltzeko.

Bi kideetako batek euskaraz jardun ezean, ez da euskarazko komunikazioa gauzatzen.



5) Elkarrizketa asimetrikoen balio eraldatzailea

Komunikazioaren gutxieneoak ematen direnean, hots, kide batek gutxienez ulertu eta besteak gutxienez hitz egiten duenean, sikiera elkarrizketa asimetrikoak gertatzeko aukera zabaltzen dute. Elkarrizketa asimetrikoetan kide bakoitzak bestelako hizkuntzak darabiltza. Halako elkarrizketak egingarriak dira baldin eta kideetako bakoitzak elkarren hizkuntzak ulertzen baditu, ez bestela.

Oso egoera desegonkorak dira elkarrizketa asimetrikoak, egoerak sorrarazten duen disonantzia (atsekabetasuna, deserosotasuna, tentsioa...) ez baita sekulan guztiz desagertzen. Simetriarako berezko joeraren aurka etengabe egitea eskatzen du bi hizkuntzetako elkarrizketa asimetrikoetan aritzeak. Beraz, arreta handia eta kontzientzia lan eskergea eskatzen du halako jardun batek.

Harreman asimetrikoek auzitan jartzen dute hizkuntza ohitura baten egonkortasuna eta bide ematen dute bestelako hizkuntza ohitura bat eraiki dadin. Izaera eraldatzailea izan ohi dute harreman asimetrikoek, egoera baten egonkortasuna atzean utzita bestelako egoera egonkor batera pasatzeko.

6) Ohiko harremanetan hizkuntza ohituren iraultzea da jardun soziolinguistikoaren gakoa

Gure egunerokotasunak nagusiki ematen da harreman eremu finkoetan non hizkuntza jokaera ongi zehaztuta eta finkatuta ageri den. Ohiko harremanetan darabiltzagun ohiko hizkuntza jokaerak dira hizkuntza ohiturak, hots, komunikazio beharrak asetzeko erabili ohi ditugun bide adostu eta koordinatuak (era oharkabean gehienetan).

Ohiko harremanetan jakin ohi dugu gure solaskideen hizkuntza ezaugarriaren berri. Berdin dio jakintza horrek errealitatearekin bat etortzea ala ez. Egiaztat hartzen den uste batek osoki funtzionatzen du errealitateari eustekotan. Hala esaterako, nik pentsa dezaket nire lagun batek ez duela euskaraz ulertzen, eta uste hori gezurra izan arren egiazkotzat hartuta haren inguruan antola dezaket nire jokaera. Hizkuntza informazio horretan oinarriturik (informazio hori errealitatearekin kontrastatua egon ala ez egon ez da garrantzitsua) bilatzen ditugu biderik erosoan elkarri egokitzeko, eta behin bide horiek topatu behin eta berriz zeharkatzen ditugu, bidearen arrastoak zeharo nabarmena egin arte. Zaila izaten da gero arrasto horretatik ateratzea, zeren grabitatearen gisa inertzia psikologiko eta soziologiko guztiek hartara jotzen baitute.

Beraz, gure harreman gehienak honezkero finkatuak daude eta behin eta berriz funtzionatzen dute hizkuntza arau beraren eraginpean. Haurrez besteko adin tartetan ohiko bide horien iraultzea da jardun soziolinguistikoa. Hizkuntza gutxitu baten nagusitzeak ezinbestean topo egiten du hizkuntza ohituren irauli beharrearekin, eta hori gertatu, ororen gainera gure ohiko harreman finkatuetan eta gertuko harreman sare naturaletan gertatzen da.



7) Harreman berrietan euskara defektuzko hizkuntza izatea da leinuen arteko hariak josteko bidea

Gizarte baten oinarrian gertuko harreman sareak, edo leinuak baldin badira, gizarte koherentzia osatzen da leinuen arteko zubiak eta hariak lotzerakoan. Urrutiko harreman sareekin maiz airean dago hango kideen hizkuntza egoerari buruzko informazioa. Informazio falta horren aurrean euskara defektuzko hizkuntza bezala erabiltzeak biderkatu egiten ditu aukerak euskaraz izateko arrotzen arteko lehen hizkuntza.

Zer hizkuntza hautatu behar den zalantzaren aurrean euskara lehenesteak baliagarritasun sozial nabarmena ematen dio. Bestela erdaraz gauzatuko liratekeen harreman ugari, euskarazko bidea har dezakete lehen unetik. Eta harreman sistema batean lehen bidea egiten duen hizkuntzak esponentzialki areagotzen ditu aurrerantzean sistemaren hautu nagusia izateko aukerak, zeren lehen eraginak izaten baitira sistema bat konfiguratu ohi dutenak.

8) Gazte-helduak dira gizartearen sektore nagusiak

Haurren sozializazioak hein handi batean helduen munduan murgiltzea izan ohi du helburu. Nolabait, helduen mundutik diseinatzen da hezkuntza sistema, helduen mundutik zabaltzen dira haurrengana balioak, jokaerak eta ezagutzak. Haurrek beraiek ere jakitun dira horrekin. Nagusien munduari begira daude etengabe, nagusien jokaerak eta jarrerak hartzeko prestutasun ikaragarria erakusten dute. Nagusi horiek bezalakoak izan nahi dituzte haien munduaren parte sentitzeko.

Nekez pentsa daiteke haurrek barnera ditzaketela helduek guztiz arrotz dituzten jokaerak. Nekez bizi daitezke euskaraz helduen mundua eta jokaera erdara hutsezko dela uneoro ikusten duten haurrak. Bestelakoegiak dira haurren artean eraiki nahi dugun mundu euskalduna eta helduen artean muineraino erroturik dagoen mundu erdalduna. Hain da distantzia ikaragarria, kontraesana ezin baita inondik inora ezkutatu. Desoreka gordinaren aurrean, helduen mundu ahaltsuak jan egiten du eta zapuztu haurren mundu ahula.

Ahalegin ikaragarriak egin dira haurren mundua euskalduntzeko. Ez dira neurri eta bizitasun berekoak helduen artean egindakoak. Bi mundu hauen arteko egungo leize sakona orekatzera jo beharra nabarmena da, baldin eta nahi badugu eremu bakoitzaren sinergiak elkarri elikatzea.

Helduen nagusitasun sozialak ere isla izan beharko luke euskalduntzearen mugimenduan, eta hari, helduen munduari hain zuzen, badagokio hizkuntza jokaera kontuetan ere eredu eta aitzindari izatea, egun den ikusle pasiboa izan ordez.